

# Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2001eko urriaren 26a VI.urtea

Usurbil, 122. zenbakia



IGE PAK

Zumarategi  
Indusrialdea

**Segurtasun planekin  
arriskua gutxitu nahian**



GONZALEZ  
EHORZTETXEA

- Zerbitzu azkarra eta etengabea
- Aseguru konpainia guztiei zebitzuak eskaintzen dizkiegu. Gonzalez ehorztetxera zuzenean deitu.

Mana Larra, 18- Telf: 943 36  
1.A 21 63  
Mob: 608 16

## GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.  
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ,  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT, TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK, EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAZ  
SARRERAK: 500,000 pezetarik. HILEKOAK: 15,000 pzt.

**MENDIGAIN S.M.** ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

### GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

# URTINEA lorategia

**Egun osoan zehar zabalik!**

*Santu Guztien Egunean  
erramuak, zentruak, koroak...  
hemen aurkituko dituzu*

**San Esteban auzoa Telf: 943 36 22 55**



## Txerrimunik ordainetan



Gure etxeko tikiak 2 urte bete-ko ditu azaroaren 2an. Zorionak **Nora** eta muxu haundi bat etxeko guzien partez.



**Jabierrek** urriaren 21ean bete zituen 45 urte. **Pilarrek**, berriz, urriaren 24an 51 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak etxeko bi kapitain hauentzat. **Haritzek** urriaren 4an bete zituen 4 urte, **Enekok**, berriz, azaroaren 5ean beteko ditu. Aupa txapeldunak!



Zorionak **Ainarak** Urriaren 26an txintxo portau eta gutxi ligau! (je, je). Musu-kuak etxekoen partez.



Aupa **aitona Manuel eta amona Felisa**. Urriaren 10ean zuen 61. ezkontza urtebetetzea izan zenez zorionik beroena opa dizuegu. Zuen umore onarekin jarraitu horrela. Zuen seme-alabak, errain, iloba eta biloba Julenek besarkada goxo bana bidaltzen dizue.

Oren 00-11-06/ikel 00-11-08



Unax 00-11-07/Itsaso 00-11-10

Zuen **guraso eta familiaren partez**

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarfe hau erabili dezakete. Ekarrri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: azaroak 9

Ekartzeko azken eguna: azaroak 2

## Jaiotzak

**Silvia Omotaro Agibotauen**  
2001-07-15  
Santuenea

**Maitane Aranburu Echarren**  
2001-07-17  
Kaleberri

**Eñaut Pagola Martin**  
2001-07-17  
Etxealdia

**Julen Portularrume Borda**  
2001-07-17  
Atxegalde

**Unai Iraola Otamendi**  
2001-07-20  
Aginaga

**Elene Rekondo Yurrita**  
2001-07-21  
Kaleberri

**Jon Zumeta Zuasti**  
2001-07-24  
Kaleberri

**Andoni Sukia Lanberri**  
2001-07-27  
Kalezar

**Imanol Galarraga Otermin**  
2001-08-05  
Aginaga

**Xabier Arriola Lertxundi**  
2001-08-20  
Kalezar

**Eider Arsuaga Urkia**  
2001-09-01  
Kaleberri

**Ekain Salegui Urrestarazu**  
2001-09-08  
Kaleberri

**Enara Egizabal Rikondo**  
2001-09-17  
Kalezar

**Ane Aizpuru Lizarraga**  
2001-09-28  
Aginaga

**Julen Nazabal Aisa**  
2001-10-02  
Kalezar

## Udaltzaingoaren ordutegia

### Astegunetan

6.00/22.00

### Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Noaua aldirkaria!  
Bordaberri 3  
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zerbaitaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitaratu emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

## Azaroa

Astel.	Astear.	Asteaz.	Osteg.	Ostir.	Larun.	Igand.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

● Hurrengo alea

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Olatz Lasagabaster eta Agurtzane  
Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agur-  
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,  
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel  
Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz  
Goenaga, Urko Manterola, Eneko  
Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Jose-  
ba Zubeldia, Imanol Goenaga, An-  
doni Udabe, Eukene Kamino, Isaak  
Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eiz-  
mendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus  
Urbietza, Iñaki Agirresarobe eta Mari  
Angeles Arruti.

**Bazkidetza**

Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster  
eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika**

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa**

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta  
Kerman Errekondo

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du  
bere gain hartzen aldizkarian adie-  
razitako esanen eta iritzien erantzun-  
kizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko  
jendaurreko  
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00  
astegunetan**



## Gerra garaian, hitz egin dezagun!

**Ana Aizpurua**  
**Elkarriko kidea**

**A**zken hilabete  
hauetan sartuta  
gauden borroka  
honetan (etengabeko  
informazioa, herrien arteko  
indarkeria, etab.) ELKARRI-  
ren inguruan biltzen gare-  
nok, lanean jardun gara  
irailak 11 baino lehen eta  
ondoren "Bake Konferentzia"  
prestatzen.

Hasieran proiektu bat  
zena, gizartearen bultzat-  
dari esker (sinadura +  
laguntza ekonomikoa)  
gauzatu da. 50.000 lagun  
bat gatoz Elkarriren printzi-  
pio gidariekin:

- \* Indarkeriarik eza eta  
giza eskubideak.
- \* Elkarriketa eta akor-  
dioda.
- \* Araubide demokratiko-  
ak eta gizarteari kontsulta.
- \* Aniztasuna eta ugarita-  
suna aintzat hartzea
- \* Eraikitzailea den oro  
bultzatzea.

Azken honek "Bake Kon-  
ferentziaren" prestakun-  
tzan asko lagundu digu,  
partehartze positiboa eta

konprometitua derrigorrez-  
koa baita maila guzietan,  
berdin Bake Nobel sari-  
tuak, politiko, bitartekari  
edota herriko udalgizon-  
emakumeena.

ELKARRIK ez du helburu  
politikorik finkatu "Bake  
Konferentzia" honetarako,  
baina bai prozesuaren  
abiapuntua: BERDINTASU-  
NA. Hitz bakar batek labur-  
biltzen du Bakerako, Aska-  
tasunerako eta Elkarbizitza-  
rako gure konpromisoa.


Ondorengo 6 hilabeteet-  
tan, interesatuekin, idatziz  
eta korreoz mantenduko  
duga hartu-eman, infor-  
maziozko kale-irteerak  
egingo ditugu eta urtarrile-  
an hitzaldi ireki batez herri-  
tarrei azalduko dizkiegu  
BAKE KONFERENTZIAren  
egoera zein den, lan-dina-  
mika zein izango den  
etab... Gai honi buruz edo-  
zein kezka edo interesa  
baduzu deitu 902421010  
telefonora.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

# Kultura eta Euskara Teknikariaren lanposturako azterketa

**B**ehean sinatzen duenak, Lurdes Zubeldia Errazkin, usurbildarra, duela 18 urtez geroztik Usurbilgo Udalean lanean ari dena, eta ENA zk. 0015262-G duenak, Epaimahai honi hauxe azaldu nahi dio:

Usurbilgo Udalak (UEMA-udala) 2001eko apirilaren 11n, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn, zk. 72), Kultura eta Euskara Teknikariaren lanposturako oinarriak argitaratu zituen. Bertan, hain zuzen ere, jakin beharreko gaietan *"La Constitución Española de 1978: Concepto, significado y características"*.

*Principios generales. Derechos y deberes fundamentales*" eskatu du Usurbilgo Udalak.

Bestalde, Bermeoko Udalak (UEMA-udala) 1998ko uztailaren 29n, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAOn, zk. 143), Euskara Teknikariaren lanposturako oinarriak argitaratu zituen. Bertan, ez du *"La Constitución Española"* delako hori aipatu ere egiten (lanpostu hartan epaimahikide, ordezkoa, izan nintzen).

Beraz, hauxe galdetzen diot nire buruari: era hauetako lehiaketetan derrigorrezkoa ote "La

Constitución Española" delako hori sartzea: BAI ala EZ?

Hortaz, eta Intsumimisiorekin aldarrikapena eginez, Oposiziolehiaketa honetan parte hartzeari uko egiten diot goien aipaturako arrazoiengatik, eta Epaimahai honi hauxe eskatu nahi diot:

Nik uko egitearen arrazoiak aktan agertzea, eta honen berri Usurbilgo udalari ematea, azpimarratuz: Udalbiltzaren apustua ez doala bide horretatik.

**Lurdes Zubeldia Errazkin**

## Liburutegiaren oharra

**B**este behin ere, zera adierazi nahi genuke: Liburutegiko erabiltzaile guztiek aukera berdina izan ditzaten, bertako liburuak etxera eraman eta luzaroan itzuli gabe dituzuen guztiei, arren, dei egiten dizuegu, lehen bait lehen itzul ditzazuen.

Bestalde, Usurbilgo Udal Bibliotekak bere zerbitzuak hobetze aldera, bertako zerbitzuak informatizatu dituela jakinarazi nahi dugu, hala nola:

- OPAC edo Katalogoa: ordenagailu honetan, liburutegian ditugun dokumentu ezberdinak kontsulta daitezke.

- Mailegua edo prestamoa, liburuak, aldizkari atzeratuak eta ikusentzunezkoak (Bideo, DVD, CD eta CD-ROMak) mailegatzen direlarik. Zerbitzu hau erabili nahi duten guztiek, bazkide txartel berria lortu behar dute liburutegian.

- Biblioteka elektronikoa: Internet (16 urtetik gorakoentzat) eta bertako CD-ROMak liburutegian bertan kontsultatuzeko aukera.

**Bakartxo Iguaran**  
**(Udal Liburutegiko laguntzailea)**

## Gernikako estatutuak 22 urte

**U**rriaren 25ean bete dira 22 urte Gernikako Estatutua indarrean jarri zela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Nafarroa bereizita, eta Iparraldean urrun, hiru egitura administratibotan banatuta geratu zen Euskal Herria Estatutu horren bitartez. Zatiketa latz horri ezikusiarrena eginda, mezu positiboa zabaldu zuten Estatutuaren aldeko alderdiek: "Estatutuarekin Nafarroa Euskadin", "Estatutuarekin Presoak Etxera". Ia-ia...

Behin eta berriz sinestarazi nahi ziguten ez zela, beharbada, helburua, baina bai bitarteko egozia. Eta, egia esan, bazen bai bitartekoa, baina Espainiako estatutuak erabili duena, bai ederki erabili ere, Euskal Herri Batuaren aldeko apustua baretzeko eta, pixkanaka, itzaltzeko.

Urteak pasa ahala, ordea, Estatutuaren benetako izaera agerian geratu da. 1995eko Aberri Egunaren inguruan, ELA eta LAB sindikatuek plazaratutako adierazpenean Estatutua agortuztat ematen da. Harrezkero, bereziki Lizarra-Garazin egindako diagnosi bateratuan, alderdi abertzale guztiak bat etorri dira Estatutuaren aroa bukatu dela esatean.

Baina, zoritxarrez, ustez aro berri batean geundela, atzera bueltatu gara berriz. Orain diote ezetz, Estatutuarekin jarraitu behar dugula. Aldaketa hori borroka armatuak eragin ote du? Borroka armatua al da definizio eta determinazio falta horren erantzule?

EAJko afiliatu den Eneko Egibarrek idatzia da Euskaldunon Egunakarian (2000-12-2) honakoa: *"Gaur egun gure gizartearen arazoetarako aurre egiteko estatutuaren terapia bakarrera bueltatzea hutssegite galantatzat joko nuke eta ezingo nioke proiektu zaharberritu horri bere zergatia aurkitu, politika bera gestio hustzat ulertzen ez bada behintzat"*. Ba, EAJk Estatutuaren terapia bakarraren bidea hartu du. Eta guk bat egiten dugu Eneko Egibarren planteamenduarekin. Horregatik Batasunak ez du zer ospa urriaren 25ean. Batasunak, EAJko afiliatuak bezala, beste bide bati ekitzeko borondatea du. Bide horretan, proiektu politiko guztiek aukera berdintasuna izan behar dute, inork inori ezer inposatu gabe. Hori da bake justu eta iraunkorrerako formula.

**Usurbilgo Batasuna**

# SANTUENEA

Pako Agudo



## Konponketa garaia

**A**zken bolada honetan, konponketa ugari izan ditugu auzoan eta, batez ere, eskubaloizelairean ondoan dagoen parkean. Halakoetan oso zaila izaten da denok ados jartzea, lanak onerako edo txarrerako izan diren. Baina, nik, gutxienez, eskertzen dut auzoaren jartzen den interesa.

Kolupio berriak jarri eta zaharrak kendu dituzte. Bartzuen ustez, arrisku zaharrak kendu eta berriak jarri dituzte. Noiz egongo gara konforme?

Poliki-poliki auzoaren beharrik betetzen dira eta asfaltu eskatutakoa kontuan hartzen da. Orain dela gutxi hor

ikusi ditugu udaletxeko langileak eskubaloizelairean lanean. Azkenean, parkea eta eskubaloizelaia banatu dituzte, eta guztion onerako da. Lehen, banatu gabe zeudenean, apenas nabaritzen zen non bukatzen zen zelaia eta non hasten parkea. Horregatik, baloiak



denbora gehiago ematen zuen parkean zelaiean baino.

Aprobetxa dezagun, bada, auzoko lasaitasuna eta, nire ustez, segurtasuna ahalik eta ondoen bizitzeko. Orain auzotarren esku dago Santuenean ahalik eta denbora gehien ematea.

Amaitzeko urte sasoi berriari ere tartetxoa egin behar. Udazkena eta hego-haizea etorri zaizkigu bisitan eta, hauekin batera, usoak, askotan "mingainarekin" botatakoak. Kartutxo soinuaz esnatzen ohituak gaude dagoeneko, beraz, lo egin ezin duenari animo eta ehiztariei zorte on eta denboraldia aprobetxa dezatela.

# URDAIAGA

Eider Jauregi



## Zorionak Joseba!

**O**rain egun gutxi jakin dugu gure auzoa den Joseba Zubeldia, bere anaia Haimarrekin batera, Euskaltel-Euskadi taldeak fitxatu duela. Lehenengo Haimar izan zen honelako albiste pozgarri batekin etorri zitzaiguna eta, hara, non eta, orain, bere anaia Joseba.

Bi anaiak txiki-txikitatik egon dira txirrindularitza munduan murgilduta. Hamaika lasterketa egin behar izan dute bi anaiak heldu diren lekura iristeko. Beraien esfortzu eta izerdiek fruituak ematen hasi dira. Dagoeneko Haimarrek garaipe esanguratsuak ekarri dizkigu, nahiz eta aurtengo urtean

ez duen zorte onik izan. Espero dut datorren denboraldirako, errekupeazio on baten ondoren, zezenari adarretatik heldu eta aurrera begira jarri ondoren garaipe gehiagorekin etortzea.

Josebak lan gogorra izango du hemendik aurrera. Hasiera batean, besteentzat lan egin beharko du, baina zuk ez etsi! Urteak aurrera egin ahala, garaipeak etorriko dira eta.

Jakizu asko pozten garela zu profe-

sionaletara igo izanaz. Zure auzotarren animorik ez zaizu faltako, ez zuri ezta zure anaiari ere. Ea ba biok elkarrekin denboraldi polit bat burutzen duzuen. Zorte on eta Zorionak Joseba!



# KALEZAR

Urko Manterola



## Aterpe polit askoa

**O**raingoan berrikuntza eta guzti nator txoko honetara. Azkenaldian gure auzotik pasa bazarete, atzemango zenuten Ugarte parean etxetxo berria dugula, aterpedun autobus geltokia. Polit asko dago,



gainera. Aurrerantzean ikastolara txukun iritsiko dira Kalezar-ko haurrak, eguraldi ona edo txarra egin.

San Estebango gure kronistaz gogoratu nintzen geltoki berria ikusi nuenean, Josebak behin eta berriz eskatu zuen txoko honetan han goikaldeko haurrek aterpea behar zutela euria egiten zuenerako, ikastolara mela-mela eginda iristen zirela, bestela. Guk ez dugu hainbestetan eskatu baina ondo etorriko da, hori ziur.

Hala ere, ikastola herrira eramane zutenetik ez da hainbeste atzematen hurren joan-etorria, orain, haurtzaindegia-ekin, txikitxoak ere izan badi-

ren arren Kalezar inguru honetan.

Baina halako geltokiak ez dira txikienez bakarri izaten, hain txiki ez direnek ere bilatuko diote erabilpenik, sikiera gau hotzetan kuadrilan biltzeko. Izan ere, zahartxeago garenean azkar jotzen du herriko taberna zokora. Bada, ordea, tabernarako gazte eta etxean egoteko zahar samar zaren adin tarte bat. Gauetan bueltaxka ematea gogoz hartzen den sasoa eta... badakizue. Ea aurrerantzean geltoki berriak ematen digun zeresanik, bertan ikusitakoak kontatzeko modukoak badira tarte hau betetzen lagunduko digute.

# ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



## Maindireak horiz busti ziren gaua

**A**rratsaldeko 16:30ak ziren. Egunero bezala, Udarregi izeneko ikastolatik bertako haurrak lasterka atera ziren autobus orlegia hartzera, etxera itzultzeko. Horietako haur bizkor batek, ordea, etxerako auto-

bus orlegia hartu aurretik, abentura batean murgiltzea erabaki zuen. Zerbait ikusgarria egin nahi zuen eta, hala, ikastolatik gertu zegoen auzoa, Atxegalde izenez ezaguna, leku egokia izan zitekeela pentsatu zuen.

Motxila ireki eta bertatik txiskero txikitxo bat atera zuen. Ixil-ixilik, auzoan ezagunak diren landare erraldoietako bati sua ematea otu zitzaion, astelehen har-

tan hego-haizea nagusi zela ohartu gabe hor nonbait. Sua eman eta etxera eramane behar zuen autobus orlegian sartu zen, belarritik belarrirako irriparrarekin.

Sua ikusirik, auzoko bizilagunak herriko zaindariei deitu zieten eta hauek, di-da batean sortutako su eta keak itzaldutuzten; eskerrak! sutea konpondu zen, baina auzoan hain ezagunak diren hiru landare erraldoi erabat kixkalita geratu ziren.

Gau hartan mutil bizkorrak oheko maindireak horiz busti zituen, pixak ihes egin zion ametsaren zurrunbilan.



## TXOKOALDE

Olatz Goenaga



### Joko malabarrak egin behar

**H**asteko, lehengo alean Fermindegi pareko bihurtunean asfalto berria bota zuten agertzen zen. Ba esan beharra daukat, euri pixka bat egin duen egunetan berriz ere istripuak izan direla, egunen batean bat baino gehiago gainera. Bazirudien asfalto klase hori istripu gutxiago gertatzeko bota zutela. Egindako konponketekin, kotxea karreterari hobeto heltzen omen zaio, eta bihurtunean kotxea kontrolatu eta bidetik ez ateratzea lortu nahi da, baina hala eta guztiz ere euri pixka bat egin duenean istripuak izan dira. Beraz, leku horretan aurrerantzean ere istripu eta baranda hautsiak behin eta berriz ikusiko ditugula dirudi.

Bestalde, aurreko Urriak 19an Akerra Gaztetxean, Erantzun, 100 Hongos eta Ira et Decessusen kontzertua izan genuen eta baita malabareak ere. Jende ugari gerturatu omen zen gaztetxeko kontzertura talde hauek entzuteko asmoz eta giro polita sortu zen bertan.



Kanpoko jendea ere ba omen zen. Baina denak aho zabalik utzi zituztenak joko malabarrak egiten aritu zirenak izan omen ziren. Irisasi etxean "de paso" dauden australianoak izan ziren guzti horren errudun. Kanpoan egiten zuen giro ederra aprobetxatuz gaztetxe aurrean ekilibrio eta malabar ariketa desberdin ugari eta ikusgarriak egin omen zituzten.

Badirudi beraien herrian horretara dedikatzen direnak direla eta egin zituzten ariketak ez direla edozein afizionatuk egin ditzazkenak. Beraz jendea gustora eta arrituta ikusi zuten ikuskizunarekin eta antolatzaileak ere gustora, noski.

## KALEBERRI

Jokin Zubiaur



### Porrusaldaz oraingoan

**T**xoko hau nirekin banatzen duen Eneko Harreguyri erantzunaz has nezakeen gaurkoa, parke berriaren inguruan batzuen eta besteen iritziak direla eta, baina, askok espero ez badute ere, oraingoaz parkearen gaia bazterrean utzi behar dut.

Porrusalda antzekoaz osatuko ditut, bada, lerro hauek, Kaleberrik ematen baitu gairik porrusaldarako. Batetik, azken asteotan kaskoan izandako aldaketak aitatu behar ditut. Errotonda inguruan porlana nagusitu zaigu, "isletak" material honekin osatu baitituzte. Batek baino gehiagok atzemango dio, kafea hartu bitar-

teko askoren aparkaleku izaten baitzen inguru hau. Aurreraxeago ere, Laurok parean, bada aldaketarik. Lasaiago ibili behar dute zenbaitzuk aurrerantzean, autoen abiadura mantsoarazteko koska nabarmenak jarri baitituzte. Eta obra kontuak kitzatzeko, sindikatuaren toki aldaketa aipatu behar. Aurrerantzean Ugarteko industrialdean izango da sindikatu berria eta, beraz, Udaletxe pareko lokala itxi eta bertan etxebizitzak eraikitzen hasiko dira. Dirudienegaz aste pare bateko kontua izango da, sindikatu berria azaroa hasieran irekitzekoak baitira.

Eta obra kontutik festa girora. Joan de urriaren 14ko piper

usaina guztiz desagertu ez denean, gain-gainean dugu azaroaren lehenengo eguna eta, beraz, Aitzaga Kultur Elkar-teak antolatu ohi duen artisautza azoka. Piper usaina idi usainak tapatuko du orduan, arratsalde partean uztarri bakarrean arituko baitira Izetaren lau idi. Millan Telleria eta Sebastian Lizasoren bertsoek lagunduko omen dute idi-dema; omen esan behar, iaz ere kantatzeko asmotan etorri eta bertsoan egin gabe bueltatu baitziren Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak, megafonia arazoak zirela eta ez zirela. Festa polita, beraz, azaroaren bata eskainiko duena.



# AGINAGA

Maria Angeles Arruti



## Aurrera gazteak, hobetzen ari zarete

**F**estetan jende gehien biltzen duen ospakizuna izango da sokatira. Aurten ere lau talde aurkeztu ziren plazara; Goitarrak, Gazteak, Aginagako Kirol Elkarte eta Sekaña.

Goitarrak izan ziren nagusi. Hala ere, aurten bigarren gelditu den Gazteak taldea gorantz doa, indarrak gehitzen ari zaizkie hauei, lehengo urtean hirugarren postuarekin konformatu

behar izan zuten eta. Animo mutillak! Laister lanak emango dituzue eta.

Oilasko biltzaileak ere,

usadioa jarraituz, egin dute aurtengo "paxara". Akatsen bat izan omen zuten, baina azkenean moldatu omen ziren. Oilaskoak ezin omen dira bizirik zintzilikatu makilean, animalien babeserako talderen batek buelta egina zuen Usurbilgo Santixabeletan eta San Praixkuetan ere tentuz ibili beharra zegoen. Usadioak usadio, baina gauza batzuk aldatu beharra daude nonbait. Azkenean festa primeran atera zen eta hori eskertzekoa da.

Bai sokatiralariak eta bai oilasko biltzaileak zein baino zein bere lanetan txukun aritu dira aurtengo San Praixkuetan. Horiek bai sasoi!



# ZUBIETA

Xabier Arregi



## Saneamendua eta ura

**A**ñarbeko mankomunitateak Zubieta saneatzeko bi proiektu onartu ditu berriki. Batak hipodromo aldeko urak biltzen ditu, eta besteak Zubietako erdigunekoak.

Bigarren proiektu honetarako lur-jabeen adostasunak bildu dira dagoeneko, eta lehenbait lehen obrei ekitekotan dira. Iri-goien aldetik hasi eta Lizarraga aurretik barrena pasako dute hodi bat, handik zeharrean Barrenetxe alderako bidea hartu eta ibai aldera joko du. Tubo horrek jasotzen dituen ur zikinak Urdin-Horia zalditegiaren ondoko ponpaketa-estaziora (bonbeo-estaziora) eramango dira, eta handik Loiolako ur-tratamenduko estazio handira.

Proiektu hauek behar-beharrezkoak dira, baina Herri-Batzarrak behin eta berriz eskatu du Zubieta oso-osorik saneatu behar dela. Momentuz hitz eman zaigu azterketa serio bat egingo dela ikusteko ea zein den Amiri alderako ur zikinak biltzeko sistematik onena. Etxe gutxi direla diote, gastu handiak egin beharko direla... baina ez dute ezetzik esaten.

Hortaz, gain-gainean egon beharko dugu, obra horiek egiteko unerik aproposena orain-gorago hau da eta.

Bestalde, ur zikinak bakarrik ez, ur garbiak ere arazo ditugu azken bolada honetan. Gero eta maizago gertatzen dira leherketak ur-tuberietan. Bistakoa da oso zahartuta geratu dela Zubietako hoditeria. Horrek, jakina, aldatzea eskatzen du. Herri-Batzarrak erabateko lehen tasuna emango dio gai honi datorren urterako eskaeretan.



## “Gaur han daude, baina bihar zer gertatuko den ez dakite”

**X**abier Miguel “Ezkerra” eta beste 16 euskal errefuxiatu Frantziako lurraldea uzteko agindu die Paueko prefetak. Horretarako hilabeteko epea eman die, izan ere, “ordena publikoa nahastea helburu duen erakunde terroristako militante aktibo” izatea eta “haien aktibitateak Frantziako ordena publikoa larritasun haundiz mehatxatzea” leporatzen die. Batasunako zinegotziak berarekin egon ziren duela gutxi eta beraien kontatu digute nola ikusi zuten Xabier.

### Zer dela eta bisita hau?

Udal honen eta Bata-sunaren politika da errepre-saliatuei elkartasuna adierazteko bisitak egitea. Ramon Uribe eta Patxi Seguiolaren-gana joan ginen, orain Xabier “Ezkerra”rekin egon gara eta Xomorrogana ere pasa den urriaren 20an izan ginen.

### Nola ikusi duzue Xabier?

Betiko moduan. Berak, erre-fuxiatua izanda, trukerako txan-pon bat dela garbi dauka. Egoera horren aurrean lanera-ko eskubiderik gabe, gizarte-asegurantzarik gabe dago, ahal duen moduan bizimodua ateraz. Orain eskutitz hau jaso dute, baina horretarako prest zeuden, orain artekoaren jarraipen bat dela esaten baitu. Gaur han daude, baina bihar zer gertatuko den ez dakite.



Animoz eta moralez osorik ikusi genuen, baina aldi berean zer egoeratan zegoen jabetuta.

### Frantziako estatua uzteko agindu honek zer suposatzen du?

Lehen zuten mehatxu hori areagotu egin dela esan zigun. Berak egunez egun bizitzen jarraitzeko asmoa du, baina mehatxua jaso duen kolekti-boa 17 pertsonakoa dela kon-tuan hartu behar da. Batzuk beren bizimodua han finkatua dute, lan duin bat dute, hilobak ere han bizi dira... eta orain hilabeteko epea eman die Frantzia uzteko.

### Mehatxu berri honen aurrean zer egiteko asmoa dute?

Mobilizazio desberdinak bul-tzatzea da beraien asmoa. Momentu honetan elkarte desberdinen atxikimenduak jasotzen dihardute, eta aurrera begira hainbat ekimen pen-

tsatzen eta prestatzen ari dira. Estatu frantziarrak eta espai-niarrak beraien egoerarekin etekinik ez dutela atera behar argi dute. Horrez gain, judizial-ki dituzten bide guztiak ere jo-rratuko dituztela suposatzen dugu.

### Guzti honen aurrean zer egin dezake udalak?

Udala ere kezkatu dago. Alde batetik presoek bizi duten egoera dago. Xomorrok hamar urte egin ditu espe-txean, Ramonek sei eta Patxik bi. Xabierrek, berriz, ia 26 urte daramatza errefuxiatuta. Guzti honen aurrean gure lana da elkartasuna adierazi eta ahal den neurrian euskaldun guz-tiok Euskal Herrian bizitzeko dugun eskubidea defen-datzea. Horrez gain, bat egi-ten dugu errefuxiatuen egoera salatzeko eta beren esku-bideak aldarrikatzeko egiten ari diren ekimenekin.



Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



Euskal presoak etzera!



Beheko kalea. 4  
Telf: 943 36 57 42

## ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK  
BARAZKIAK  
ETXEKO PRODUKTUAK  
KONGELATUAK

## “Iparraldeko ikastolen alde dirua bildu eta haiekin hartu-emanak izatea da gure helburua”

### AITZAGA KULTUR ELKARTEA

■ 1994an sortua

■ Boskote bat hasi bazen ere, egun bi lagun ari dira lanean

■ Ohiko ekitaldiak: lau terdiko pilota txapelketa, azaroaren 1eko artisautza azoka, santixabeletako ekitaldia, Iparraldeko eta Nafarroako ikastolen aldeko kanpainak.

■ Azaroaren 1erako VII. Eskulangintza azoka eta erakusketa antolatu dute.

**A**itzaga Kultur Elkarteak zortzigarren urtea bete du aurtengo maiatzean. Aitzaga taberna eta elkarte sortzearekin batera, boskote batek kultur elkarbat martxan jartzea erabaki zuten. Bi izan ziren arrazoi garrantzitsuenak: batetik, Aitzaga elkarte gastronomiko soila baino zerbait gehiago izateko, eta, bestetik, herriari kultur bizimodu aberatsagoa eskaintzeko.

Aitzaga Kultur elkarte kide Joseba Berriozabalen esanetan, *“hor bazegoen beste erreferentzia bat. Gure elkar- tea plazan dago, horregatik, plaza eta frontoiarekin lotura izan behar zuen elkarte bat sortu behar genuela ere uste genuen”*.

Ildo horretatik, Aitzaga kultur elkarteak antolatu zuen lehen ekitaldia lau terdiko pilota txapelketa izan zen. Harez geroztik urtero-urtero antolatu dute.

Pilota txapelketaz gain, urtean zehar beste hainbat ekitaldi ere antolatzen dituzte: Santixabeletako ekitaldia, azaroaren 1eko artisautza azoka eta Iparraldeko eta, aurtun, Lodosako ikastolen aldeko kanpainak.

Kanpaina hauen helburua, nagusiki, ikastola hauen alde dirua biltzea da. Herri mailan kanpainak egin izan dira, esate baterako, bertako hainbat produktuen salmenta eta Gabonetako pailazoen emanaldia.

Halaber, badago azpimarratzekoa den beste ikuspuntu bat ere, hau da, usurbildarren eta hango jendearen artean sortu diren hartu-emanak. Usurbildarrak Iparraldera joan izan dira. Lontxo Zubiriak aipatu zuenez, *“Udaletxeko brigada egun osoz jardun zuen lanean Sohütako ikastola eraikitzen. Bestetik, egunpasak ere egin izan ditugu bertan eta beraiek ere Usurbila etorri izan dira”*.

Egun, batez ere, Aitzaga Kultur Elkarte lanean Lontxo Zubiria dabil, beste hainbaten laguntzaz. Dinamika finkorik ez duten arren, beti saiatzen dira ohiko ekitaldiez gain, beste zerbait antolatzen. Horren lekuko dugu, aurtengo udaberriaren Aezkoa-Irati irratia alde egindako lana. Gogoia eta beharra dagoen bitartean, lanean jarraituko dutela garbi dute bi kide hauek.



## Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



## MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzue

*Udazkeneko moda berria zuretzat!*


Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

# Thamer Birawi: "Palestinarra den guztia israeldarrena balitz bezala saltzen dute"

**T**hamer Birawi Palestinan jaio zen duela 41 urte baina Tolosan egin ditu azken sei urteak. 24 urterekin Erromara joan zen ikastera eta bertan hamar urteko egonaldia egin zuen. Azken zazpi urteak, ordea, Tolosan pasa ditu. Erromatik trenez etorri zen bertara, baina bazekien nora zetorren, Italian ezagutu baitzuen gaur egun bikote duen laguna, eta familia ere osatu du. Datorren urriaren 31n Udarregi ikastolako erdiko aretoan "Suzko hitzak" ikuskizuna aurkeztuko du. Bide batez, guk, berarekin Ekialde Hurbileko gatazkari buruz hitz egiteko aukera izan dugu.

**Palestinarra izanik unibertsaltasuna aldarrikatzen omen duzu.**

Italia, Alemania edota Tolosa nire lurraldeak izango balira bezala sentitzen ditut. Nire ustez ez dago mugarik pertsonen hitz egiten dugunean. Bizilekuz aldatzeko zailtasunik ez nuen izan, zergatiak konbentzitu eta etorri bainintzen hona. Behin betirako hona etorri baino lehen bi asterako etorri nintzen, eta kutsatu gabeko paradisu lurterra zela iruditu zitzaidan.



Oraindik ere uste bera daukat. Halabeharrak ekarri ninduen, azken finean, Euskal Herrira eta ez naiz damutzen. Sustraiak hemen botekak ditut eta nire egungo eta etorkizuneko historiako zati bat da Euskal Herria eta batez ere Tolosa.

**Nola hartu zintuzten Tolosan?**

Bai Euskal Herrian, eta baita Europan ere Palestinarrenganako jarrera konkretu bat topatu izan dut: jendea gurekin dago edo gure kontra. Euskal Herrian Palestinarren aldeko jarrera nabaria da, baina sentazio eta impresioen gainean eraikia dago, razionalizatu gabea da. Azken finean ondo hartu ninduten, baina beti izaten da esperimentzia txarren bat pasarazten dizun norbait. Erabat onartua sentitu naiz, baina Euskal Herrian palestinar gutxi daudela ere kontuan hartu behar da, bestela izango balitz, agian, harrera erabat desberdina izango litzateke. Euskaldunen aldetik palestinarren aldeko jarrera oso teorikoa, sentimentala dela iruditzen zait. Palestinako errealitatea, kultura etab. ez dira ezagutzen. Horregatik, denok elkar hobeto ezagutu gaitezen, bien arteko lokarri konkretu batzuk zabaltzeko errealitate hori Euskal Herrira gerturatu nahian nabil.

**Nolakoa da Palestinarren kultura?**

Palestinako kultura aberatsa da oso eta beste kultura guztien modura ezagutzeak merezi du. Hala ere, israeldarren zapalkuntzaren ondorioz galtzen ari den kultura bat da. Nik umetan ezagutu nuen Palestina gaur egungo belaunaldientzat oroitzapen hutsa da eta ez dute gordetzeko denborarik, Palestinako herriak bere osotasunean dituen eguneroko arazoak izugarriak baitira. Indar guztiak egunero iraunbizitzeko erabiltzen dituzte. Familia bakoitzeko aitak egunez egun bizi ahal izateko ezinbestekoa dena etxera eramateko malabarismoak egin behar dituenen, ez du seme-alabei duela 50 urte ogia nola egiten zuten kontatzeko ahalmenik. Gaur egungo palestinarren aurkako sarraskia ez

da pertsona fisikoen aurkakoa bakarrik, gure kultura eta tradizioak ere bereganatzen ari dira. Norbanakoak tiroka garbitzeaz gain Palestinarekin zerikusia duen guztia berea egiten dute.

**Orain ere hori gertatzen al da?**

Hasieratik hori izan da estatusionistaren politika ofiziala. Israeldarrak Palestinako lurren jabe egiten direnean, indarrez bereganatzen dutenean, Palestinarra den guztia berea balitz bezala saltzen dute. Palestinarrek egunero prestatu eta jaten duten janari tipikoa Israelgoa balitz bezala komertzializatzen dute, israeldar hegazkintako azafaten jantziak palestinarren jantzi tipikoak dira, soldaduenak ere bai... Palestinarrak ezin dira munduarekin komunikatu, ez dute enpresak sortzeko denborarik, eguneroko errepresio militarri aurre egitearekin nahikoa baitute. Bere historiaren eta tradizioen berri ez duten palestinarrek ez die minik egiten, bere nortasunaren eta bere herriaren historiaren jabe direnak, ordea, terroristak dira.

**Inoiz itzuli al zara berriz Palestinara?**

Palestatatik 24 urterekin atera nintzen eta oraindik ez naiz bertara itzuli. Ez nahi ez dudalako Israelen sartzen uzten ez didatelako baizik. Ni bezala herrira ezin itzulirik dauden milaka gazte palestinarretaz ez da ezer esaten. Israeldarrek indarrean jarri duten legearen arabera atzeritarrak gara gure lurraldean. Palestinatik ateratzeko baimena behar da eta horrek iraupen jakin bat du. Jarritako epean itzuli ezean zu jaio zaren herrian, zure arbasoak jaio izan diren herrian bizitzeko aukera galtzen duzu. Lege honekin bakarrik argi gelditzen da zein den Israelgo gobernuak legea eskutan hartuta palestinarrengan ezarzen duen politika erreala, "legala". Palestinarrak Palestinan kasualitatez daude eta hobe egongo ez balira. Baina hor daudenez lege eta ekintza jakin batzuk martxan jartzen dituzte denborarekin hor egoteaz nazkatu daitezten. Badoaz edo bestela hil egiten ditugu,

hori da beraien politika.

### Horrelako lege asko al daude?

Bai, dexente eta itzuleraren legea da, adibidez, estatu sionistaren oinarriko legeetako bat. Judioak edo hauen ondorengoak, edozein lekutan egonda ere, berak nahi duenean israeldarrek "lur promestua" deitzen dioten herrietara itzuli daitezke. Bien bitartean, Israelgo Estatu sortzeko Palestinatik indarrez, izua sortuz eta guda psikologikoaren bidez beren lurretatik bidali eta inguruko herri-aldeetan errefuxiatuta bizi diren palestinarrek ez dute itzultzeko eskubiderik. Giltzak eskuetan zituztela etxeko ondasun guztiak han utziz ihes egin behar izan zuten nire herrikide askori negoziazio guztietan beren etxera itzultzeko eskubidea ukatzen diete. Bien bitartean, munduko edozein txokotatik datozen judioak Palestinako lurra okupatzen jarraitzen dute. Estatu demokratiko izena duen hori demokratikoa da jatorri judutarra duten guzietan, baina besteentzat ez dago legerik, militarrek indarrez konpontzen dute dena.

### Su-efen bat adostu nahia, israeldar ejertzitoaren ekintza asmatuak. Nola daude gauzak?

Nik badakit zer den israeldarren okupazioaren mende egotea, badakit zer egin zuten ni jaio baino lehen zeudenekin eta baita nire ondorengo belaunaldiekin ere. Esan dezakedan gauza bakarra zera da: Israelek betiko helburuekin, usteekin eta haundinahiarekin jarraitzen duela. Indar militar eta material zapaltzailean oinarritzen dira egia ukatzeko: palestinarren eskubideak ahaztuaz, naziorateko judutar komunitateak eta gai honi bizkarra eman eta zuek biok konpondu esaten dien Nazioarteko Komunitateak sortu zuten Israel dekretuz eta indarrez. Israeli palestinar herriaren errautsaren gainean sortzeko aukera eman diote eta orain, gaur egungo indarren orekan oinarrituta palestinarrek israeldarrek konponketa batera iritea nahi dute.

### Baina indarren oreka horretan Israel da nagusi ezta?

"Hitz egin behar duzue" esaten dute, baina nola hitz egin behar dugu? Hitz egiterakoan bakoitzak bere kartak jartzen ditu mahai

## "Suzko hitzak" ikuskizuna aurkeztuko dute urriaren 31n



Aitzaga Kultur Elkartek antolatuta "Suzko hitzak" izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute Thamer Birawi eta Javier Barandiaranek Udarrigi ikastolako erdiko aretoan urriaren 31n. Ikuskizun honek zenbait autore palestinarren olerkiak biltzen ditu bi hizkuntzatan: euskaraz eta arabieraz. Horrez gain, Euskal Herriko tradiziozko doinuak nahiz soinuak entzun eta bideo

irudiak ikusteko aukera izango da. Borrokan ari den herri batera gerturatzeko modu bat da, herri horrek bere arazoak, tristeziak, nahiak eta pozak hitzez eta olerkiz nola adierazten dituen ezagutarazi nahi baitute. Iraunbizitzeko atsedenik gabe borroka egitea tokatu zaien jendearen ahotsari entzumen jarri nahi izan diote ikuskizun honekin.

gainean eta hor gauzak argi daude: gudi armatua, fusila (baladin badu) edo harriak dituztenen kontra. Egoera honetan bidezko konponbide batera iritea ezinezkoa da. Denbora da gure arma nagusia. Gure herriak Israelen enperadoretza betiko ez dela badaki. Orain, Israel indartsua denean, amore ematea etorkizunean gure eskubideak berreskuratzeko aukerak galtzea esan nahiko luke. Palestinarrok hori badakigu, eta irtenbidea jxtua izan arte konponbiderik ez da izango. Indarrez gure etxea kenduta ere, palestinar lurralde historikoaren bi heren Israeldarrentzat eta heren bat palestinarrentzat izatea jarri zuen nazioarteko komunitateak konponbide modura. Arafat eta bere lagunek hau onartu zuten, baina Israel, orain, ez dago hau onartzeko prest.

### Zein da zuretzat irtenbide jxtua?

Ez dago munduan beraien etxeetatik bidalitako palestinarrei hura ahaztaraziko dien indarrik, eta ez da inoiz egongo. Errefuxiatu palestinarrek eta ondorengoak

lau milioi dira. Hauek bizi ziren hirien gainean eraiki zituzten Israelgo hiri guztiak. Juduek proposatzen dutena zera da: hartu 50.000 dolar eta ahaztu guzia. Irtenbidea ez da diru kontua. Israelek herrialde oso bati min haundia egin diola onartu behar du hasteko. Baina beraiek ikasleei Israel betidanik orain dagoen lekuan egon dela erakusten die. Jainkoak lur horiek beraienak direla esan zuelako omen daude hor. Israelek "ostia" haundiren bat behar du material mailan. Benetako indarra ezin da indar materialaz sostengatu, benetako indarra sinestasan eta printzipioetatik dator. Palestinako gatazka hau duela mende bat hasi zen eta oraindik ez da bukatu eta ez da bukatuko justizia eta egia nagusitu arte. Okupazioa gure begiekin ikusi genuen eta badakigu arrazoi dugula. Horregatik ez digute inoiz irabaziko, arrazoi dugula jakiteak ematen digun indarra baita gure armategi haundiena.

## Iarben, Ibarrola-Txikin eta Arburun zerbitzu berria eskura

**B**ehemendi Mendi Nekazaritza Elkarteak zerbitzu berria jarri berri du martxan, berak "separadore" bezala izendatu duen makina. Izan ere, horixe izango baita makina berriaren egitekoa, purinaren zati solidoa eta likidoa banantzea. Zerbitzu berriarekin mindaren arazoari aurre egin nahi dio aipatu elkarteak; izan ere, esne-behiak dituzten baserrietan behi buruak ugaritu egin dira eta putzu-beltzak txiki geratu dira.

Printzipioz, Usurbil eta Donostiako zazpi baserrian izango dute eskura zerbitzu berria, Donostiako Ondasarte, Pokopandegi, Otaño eta Bidarten eta herriko Arburu, Ibarrola-Txiki eta larbe baserrietan.

Iarbe baserriko Damaso Lizasok kontatu digunez, "solidoa eta likidoa banatzean purina errazago dominatzen da". Izan ere, eta Damasok azaldutakoaren arabera "udaran minda dagoen bezala botaz gero, oso lodia izaten da, belarra tapatu egiten du eta gero kostatzen zaio berriz haztea".

Depositoen arazoari aurre egiteko pentsatutakoa da makina berria, baserrietan behi buruak ugaritu egin baitira eta depositoak askotan gainezka daude. Lur eskasia ere traba garrantzitsua da, ez baitago ustiategie-

tan biltzen den purin kantitate guztia zabaltzeko modurik. Iarben, ordea, oraingo ez omen dute arazorik depositoarekin eta terrenoz ere ondo dabilta, "baina onerako den guztia hartu egin behar da", azaldu digu Damaso Lizasok.

Makina berria mugikorra da, diru inbertsio handia baitakar eta, ondorioz, ustiategi bakoitzak ezin du separadore bat izan. Gurdi eta guzti 2.000 bat kilo den aparailua gehienetan Igeldoko Ondasarte baserrian izango da eta aldiero behar duen ustiategira eramango dute. Maneiatzeko ere nahikoa erraza omen da, iarben oraindik erabili ez badute ere, Damasok izan du makina bertatik bertara ezagutzeko aukera eta azaldu duenez, "oso erraz maneiatzen da, argindarra izatea nahikoa da".

Zerbitzu berria baserriarren onerako da eta hauek gustura hartu dute. Aldundiaren eta Behemendiren ekimenari ez diote, ordea, udal guztiek txukun erantzun. Usurbilgo Udalak diruz lagundu du proiektua ez, ordea, Donostiakoak eta hau ez dute batere begi onez ikusi baserriarrek, "bere baserrien onerako da eta Donostiako udalak dirulaguntza eman beharko luke".



## Moto istripua

Joan den urriaren 13an moto gidari bat hil zen N-634 errepidean Irubideko errotondaren parean izandako istripuan. Jaiotzez portugaldarra, egun Parisen bizi zen istripuan hil zen 42 urteko gizona. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak emandako informazioaren arabera, motoarekin errepidetik irten eta hesi baten kontra jo ondoren galdu zuen bizia moto gidariak. Ertzaintzak istripua argitzeko ikerketa martxan jarri du, eta ezbeharrak nola gertatu zen ikusi zuten lekukoak laguntza eskatu du.

## Olioaren birziklapena

San Markoseko Mankomunitateak olio harriz herri biltzen hasteko asmoa du. Orain arte etxeetako olio birziklatu ahal izateko San Markosera eramane behar zen. Aurrerantzean bilketa herrian bertan egingo dute. Hilean behin kamioi bat etorriko da herrira eta goiz osoa (9.00-13.00) bertan ibiliko da etxeetan jasotako olio biltzen. Usurbilera hileko lehen asteazkenetan etorriko da. Datorren hilean, azaroaren 7an.

Bilketa lekuak eta ordutegia:

9:00-11:00 Kaskoan, frontoi atzean

11:05-11:15 Aginaga, Ariztixoplazan

11:25-11:40 Txokoalde, Portu baserriaren aurrean

11:45-12:00 Santuenea, Ibaiondo Elkartearen aurrean

12:10-12:25 Zubieta, Eliza atzean

12:30-12:40 Txikierdi, Txikierdi jatetxearen aurrean

12:45-13:00 Kalezar, Komentuaren aurrean

## Aginagako Gabino Salsamendiren piperrak saritu zituen bigarren Piper Egunak

**J**oan den urriaren 14an piperrari omenaldia eskaini zion aurten bigarrenez landare honen inguruan ospatutako jaiak. Plazara espero baino jende gutxiago bildu bazen ere, giro ederra osatu zen goiz partean. Herriko piper ekoizleek urte guztian egiten duten lanaren emaitza ikusi ahal izan zen frontoian, guztira hamabost bat ekoizlek aurkeztu baitzuten beren produktua lehiaketara. Azkenean, eta Joxe Loidik eta Jakoba Errekondok hala erabakita, Gabino Salsamendik etxeratu zuen lehen saria. Pedro Mari Matxainek aurkeztutako pipe-

rrek eraman zuten bigarren saria eta hirugarrena Teresa Altunak, lehengo urteko irabazleak.

Lehiaketa ez zen izan, ordea, ikusmira gehien sortu zuena. Piperra ardatz, hamai-ka pintxo dastatzeko aukera izan zen, zein baino zein bereziago eta aho gozagarriago. Hostopilaz, urdaiazpikoaz, ldia-zabalgo gaztaz, txipiroiaz edo hirugiharraz lagunduta, moka-du ederrak aurkeztu ziren. Honen guztiaren meritua Mikel Garmendiak du, Atxega Jaurregiko sukaldari buruak pentsatu-rikook baitziren gutizia

hauek. Hala, Mikeli ere omenaldi xumea eskaini nahi izan zioten antolatzaileek.



**E**spetxeraturik 10 urte daramatzen Xabier Aranburu "Xomorro" k omenaldi beroa jaso zuen Aginagan pasa den urriaren 13an. Mural pintaketarekin eman zitizien hasiera egunari, eta arratsaldean herri kirolak izan ondoren herri-afarian 140 lagunetik gora bildu ziren. Bertan, Xomorro omentzeaz gain, gogoan izan zuten Frantzia espetxeraturik dagoen Patxi Segurola, baita 1983an bonba eskuetan zuela hil zen Joxe Luix Segurola "Nazkas" ere.



**A**zaroaren 4an inauguratuko da Ugarte industrialdean kokatuko den sindikatu berria. Horretarako hainbat ekitaldi antolatuta ditu Alkartasuna Kooperatibak. Goizeko 11.30etan meza izango da eta 12.30etatik aurrera aizkolaria, harrijasoitzaileak eta sokatira tiraldiak ikusi ahal izango dira frontoian. 14.00etan eraikuntza berriko ateak irekiko dira jendeak berai ikus dezan. Hala ere, astebete inguru behar izango dute gauzak egoitza berrira eramateko.



**TXIRIBOGA  
TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**ZUMETA  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

### ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea

**Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)**

## Enpresa kimiko arriskutsua izatea eta segurtasuna elkarrekin lotuta

**I**railaren 21ean Okzitaniako Tolosan dagoen enpresa petrokimiko batean gertatutako istripu larriak argi gorria piztu du gizartean. Eusko Jaurlaritzaren arabera Euskal Herrian enpresa kimiko arriskutsu dexente daude, eta Zumartegi industrialdean dagoen IGEPAK enpresa aurten sartu dute multzo horretan. Mauro Tenes zuzendari orokorraren esanetan ez dago kezkatu beharrik, honek segurtasun neurri haundiagoak ekarri baititu.

IGEPAK enpresak betidanik erabili izan du petroliotik eratorritako likidoa bihurtzeko gasa. 50 langile inguruko lantegi honetan etxean hainbat aldiz erabili izan ditugun aerosolak egiten dituzte eta horretarako biltegian produktu arriskutsu hau edukitzeaz gain, leherketa arriskua nabarmena izaten den nahasketak ere egiten dituzte.

Orain arte egon den Seveso I legearen arabera ez zegoen enpresa kimiko arrikutsuenen artean, baina Seveso II araudia indarrean jarri denean Eusko Jaurlaritzak multzo horren barnean sartu du IGEPAK. Hala ere, Mauro Tenes zuzendari orokorraren esanetan arriskua beti hor egon da. *"Biltegian duzu produktuak agintzen du hor. Horren bolumena neurtzen dute, eta neurri batetik pasatzen bazara enpresa arrikutsutzat hartzen dute. Guk bolumen berdinarekin jarraitzen dugu, baina legea berritu dutenean neurri hori jaiatsi egin dutenez IGEPAK enpresa arrikutsuen taldean sartu dute".*

Europako araudiari jarraiki, enpresa arrikutsuek Kanpoko Larraldietarako Planak izan behar dituzte eta istripuen



aurrean behar diren bitartekoak eta pertsonak antolatzea eskatzen zaie. *"Guk lehen ere larrialdietarako plana bage-nuen, eta pixka bat eguneratu ondoren Industria Sailean aurkeztea beste lanik ez dugu izan".* Lehen ere segurtasun neurri haundiak zituzten eta Eusko Jaurlaritzak ebakuazio bat ere grabatu zuen beste enpresei erakusteko.

### Orain segurtasun neurri haundiagoak dituzte

*"Arriskua lehen zegoen bera da"* Mauroren arabera, *"duela bost urte edo duela hiru hilabete genituen produktu berdinak erabiltzen baititugu. Hala ere, segurtaun neurri haundiagoak hartu ditugu, nahiz eta neurri horietako batzuk jartzea beharrezkoa ez izan".* Erregai izan daitezkeen produktuen biltegitratze guztia, kanpoko eta lur azpiko ontziak, gas kontuak... guztiak Industria Sailaren produktu kimiko errekorren biltegitratzearen berrazterketa pasa dute... *"hartu daitezkeen segurtasun neurri guztiak martxan jarrita ditugu. Hala ere guztiok gauza bat argi izan behar dugu: etxe batean gasaren kaldera leher-*

*tu daitezkeen modura gure enpresan ere inoiz zerbait gertatu daiteke, gasarekin egiten baitugu lana".*

Talde ekologistak enpresa kimikoek langileei eta herritarrei prozesu kimikoari buruzko informaziorik ez dietela ematen kezkatzen dira. Mauro Tenaren esanetan, ordea, IGEPAKeko langileek badakite zer produktuekin egiten duten lana eta bere enpresan gertatu daitezkeen ezbeharrez hitz egiteko arazorik ez zuela gaineratu zigun. *"Guk butanoa erabiltzen dugu gehienetan eta gas hau ez da toxikoa. Gas atmosfera bat sortu eta txispa edo sutasun-puntu baten bidez leherketa bat izatea da gas-ihesketa baten arriskurik haundiena. Biltegian dauden produktuak kontuan hartzen baditugu leherketa bat edo sute bat gertatu daiteke".*

Hala ere, jarrita dituzten segurtasun neurriekin horrelako zerbait gertatzea ia ezinezkoa omen da. *"Instalakuntza osoan segurtasun balbulak ditugu, gas detektoreak ere badaude, gela batean etengabe berriztatzen da airea... istripu bat gertatzeko aukerak oso urriak dira".*



## Eskuz binaka lau t´erdian VIII. txapelketa hasi da

**A**itzaga Elkarreak antolatzen duen txapelketari pasa den urriaren 19an eman zitzaion hasiera. Herri mailako txapelketa honetan federatuta dauden pelotariak ezin dute jokatu eta "pelota goxoa" erabili behar izaten dute. Aurten 16 bikote izango dira lehian.

Urria gerturatzearekin batera herriko pelotari "amateurrak" frontoi aldera gerturatu dira ostiral gauetan. Lau t´erdian jokatzen den eskuz binakako txapelketa zortzigarren urtea beteko du aurten, eta lehenengo urtean parte hartu zuten bikote batzuk oraindik jarraitzen badute ere, pelotari berriak ikusteko nahikoa aukera izango da aurtengo honetan.

Lau taldetan banatuta 16 bikote arituko dira lehian. Azaroaren 2an jokatuko dituzte ligaxkako azken partidak eta



talde bakoitzean lehen bi postuak lortzen dituztenek eskuratuko dute final laurdenak jokatze-ko txartela.

Iaz Iñaki Errekondo eta Mikel Arroyok eskuratu zuten txapela lehen aldiz eta aurten iaz eskuratutakoa errepikatzen saiatuko dira.

### Emaitzak

**Futbola**

Urriak 13-14  
Luberri **0** - Usurbil F.T **1** (Neskak)  
Usurbil F.T **1** - Texas **1** (2. jub.)

Urriak 20-21  
Usurbil F.T **1** - San Ignacio **1** (Nes.)  
Sampedrotarra **6** - Usurbil F.T **2** (2. j.)  
La Salle **4** - Udarrege **2** (Infantilak)

**Eskubaloia**

Urriak 13-14  
Escolapios **31** - Usurbil K.E. **24** (2.N.)

Urriak 20-21  
Usurbil K.E. **21**-Portugaleta **19** (2.N.)

**Areto futbola**

Urriak 13-14  
Sociedad Sauce **1**- Txotx **4**  
Antxeta **3** - Ainse Assores **2**  
Larramendi C. **1** - Pello Arrain. **0**

Urriak 20-21  
Txotx **4**- Ataun **0**

**Hondartzako futbola**

Urriak 20-21  
Aginaga Sag. **5**- Servigraf **1**

## Baionako Aviron Endika Abril errebote txapelketan garaile

**P**asa den urriaren 21ean amaitu zen Endika Abril errebote txapelketa. Zubietako plazan Baionako Aviron eta Uztaritzeko Kapito Harri taldeak izan ziren aurrez aurre, eta partida estu baten ondoren Baionarrek eskuratu zuten txapela.

13-12 izan zen partidako azken emaitza. Zubietako

plazara gerturatu zen jendeak ez zuen aspertzeko denborarik izan. Uztaritzekoak ziren faborito nagusiak, baina Avironek ezustekoa eman eta azken joko erabakigarrian Endika Abril txapelketa Baiona aldera eramatea lortu zuten. Datorren urtean Billaonako plazan jokatuko da txapelketako azken partida.

## Joseba Zubeldia Profesionalerara

**J**oseba Zubeldia anaiarekin batera izango da datorren denboraldian Euskaltel-Euskadi taldean. Afizionatu mailan aurten garaipenik lortu ez badu ere, bi urteko kontratua egin diote eta profesional mailan izango da datorren urtean. Julian Gorosperen esanetan aurten ongi moldatu da Joseba. "Ikasketetan buru-belarri ibili da eta bagenekien ez zituela aparteko emaitzak lortuko".

**P A T R I**  
J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

**GALARRA  
GARRAIO**

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

**HAUR JANTZIAK  
MERKEALDIAK!**



**Pauma**

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

# Herriko enpresa gehienentzako jardueran gaztelania da nagusi


**U**dalak eskatuta, herriko enpresetan euskararen egoera zein den ezagutzeko asmoz azterketa bat egin zuen Emun Koop. E. enpresak apiriletik uztailera bitartean. Azterketaren unibertsoa Usurbilgo Udalerrian kokaturiko enpresak izan dira, bi salbuespen garrantzitsurekin: Urbil merkatal Zentrua eta Michelin. Azterketa honen ondorioak ezagutu ondoren udalak herriko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekimen martxan jartzeko asmoa du datorren urtean.

Azterketa Zumartegi, Osinalde, Ugaldea eta Asteasuain industrialdeetan kokaturiko enpresetan egin da batik bat eta guztira 77 enpresari dagozkien datuak jaso dituzte (1960 langile). Enpresetako euskaldun kopurua, zenbat erabiltzen den euskara enpresa barruan, zenbat ahoz, zenbat idatziz... honelako informazioa enpresetako arduradunengandik jaso dute galdetegi baten bitartez. Bestalde, 21 elkarrizketa labur ere egin dituzte 15 langiletik gora zituzten enpresetan. Honela, galdetegietako informazioaz gain, enpresak euskara kontutan izan duen esperientzia, dituen asmoak, kezkak eta gainerakoak jaso ahal izan dituzte.

## Zenbatek dakite euskaraz?

Azterketa honen arabera euskaldunak dira enpresa hauetako langileen erdia baino gehi-

## Euskaldun portzentajea Usurbilgo enpresetan



ago (%58). Herrian euskaldunak %76,1 direla kontuan hartzen badugu nahikoa baxua da batezbesteko hori. Hala ere, elkarrizketetan jasotakoaren arabera langile asko inguruko herri erdaldunagoetatik etortzen da egunero Usurbila. Bestalde, euskaldunen artean erdia baino gehiago (%63) euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai da.

## Euskararen erabilera barneko harremanetan


Herriko enpresen %33n (3tik batean) euskaraz asko egiten da, ahozko harremanei dagokionez behintzat. Eguneroko langileen arteko harremanak, lan bilerak, elkarrizketa informalak etab. euskarazkoak izaten dira gehienetan 3 enpresetatik batean. Hala ere, beste bi herenetan nahikoa gutxi edo ia ez da euskara erabiltzen.

Idatziz, euskararen erabilera askoz mugatuagoa da. Enpresa barnean era-


biltzen diren inprimakiak, prestatzen diren txosten teknikoak, bileretako dokumentazioa etab. egiterakoan gaztelania da laneko eguneroko hizkuntza herriko enpresa gehienetan (%66). Hala ere, azterketa egin dutenen arabera ulertzeko da kopurua ahozkoa baino askoz baxuagoa izatea, "idatziz euskaraz lan egiteko hainbat baldintza eman behar dira batera: dokumentu hori erabiliko duten pertsona guztiek euskara ulertzea, dokumentuak sortzen dituzten euskaldunak alfabetatuak izatea, lanean darabilten terminologia edo lexikoa euskaraz ere ezagutzea, euskaraz idazteko ohitura edota gutxieneko erraztasun bat izatea etab.". Dena den, herriko enpresen heren batean (%33) laneko zenbait idatzi eta dokumentutan euskara erabiltzen da gaur egun.

Enpresa hauek bezero edo hornitzaile diren beste enpre-

## Euskara ahoz enpresa barneko harremanetan



## Euskara idatziz enpresa barneko harremanetan



sekin dituzten ahoz eta idatzizko harremanetan ere, gaztelania da nagusi. Bai ahoz eta bai idatziz aurrez aipatu ditugun barne harremanetako portzentaien antzekoak dira hartu-eman horiek. Hala ere, badira zenbait enpresa (%7) euskara barne harremanetan batere erabiltzen ez dutenak eta hornitzaile eta bezeroekin zerbait behintzat erabiltzen dutenak.

### Bezero zuzenekin euskara gehiago erabiltzen da

Kontsumitzaileekin harreman zuzena duten enpresetan ezagutza eta erabilera gaineraketan baino altuagoak dira (%10-15 gehiago): langileen portzentaje haundiago bat da euskalduna eta euskara gehiago erabiltzen da lanean barne eta kanpo harremanetan. Kontsumitzaileekin harreman zuzenik izan gabe beste enpresentzat lan egiten duten enpresetan, berriz, euskara gutxiago erabiltzen da ahoz zein idatziz.

### Etorkizunera begira

Herriko enpresetako ardura-dun gehienek datozen urteetan lan munduan euskara gehiago erabiliko dela uste dute, baina aurrerapausoak emateko muga ugari eta aukera gutxi ikusten dute gaur egun. Enpresa batzuk langileei euskara ikasteko laguntzak ematen dizkiete, beste batzuk dokumentazio idatzian gehienbat euskaraz aritzen dira eta batek orain gutxi euskararen erabilera plan orokor bat martxan jarri du. Dena den, azter-




tutako enpresarik gehienetan euskara lanean erabiltzeari begira ez da orain arte erabakirik hartu, eta askotan ez da orain arte gaia aztertu ere egin. Izan ere arduradun gehienek ez dute euskara erabiltzea enpresaren funtzionamendu egokirako beharrezkoa ikusten, "ez da enpresaren lehentasun bat".


Azterketa honen ondorioak ezagutu ondoren udalak herriko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko hainbat eki-

men martxan jarri ditzake. Aurtan ez da ezer egingo, baina datorren urtetik aurrera lan munduan euskararen presentzia areagotzeko proposamen desberdinak egiteko asmoa du udalak. Bestalde, Urbil merkatal zentrua azterketa honetatik kanpo gelditu bada ere, bai Eroskin eta bai kanpoko komertzioetan azterketa hau egin dute dagoeneko. Eroskik, adibidez, bertako langileen artean euskararen erabilera sustatzeko plangintza bat ere aurkeztu dio udalari.

### Lanean euskara gehiago erabiltzeko enpresen interesa



**Zure  
publizitatea  
jarri nahi  
baduzu, deitu  
943 36 03 21  
telefonora!**



**Urtinea**

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

SERIGRAFIA  
TAnPOGRAFIA

**IOSU**

Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

## Herriko taldeek kultur egitarau zabala prestatu dute abendurako

**A**zaroaren 22an hasi eta abenduaren 20a bitartean herriko hainbat talde, udalarekin batera, hilabete kultural mardula antolatzen ari dira. Taldeen arteko elkarlana helburu duen egitasmo honek, kultur eskaintza zabala eskainiko dio herriari.



Azaroaren 22an, Santa Zezili eguna dela eta, Zumarte Musika Eskolak antolatu ohi duen kontzertuarekin emango zaio hasiera. Txistulari taldeak ere aipatu egunaren inguruan urtero egiten duen kalejira eta frontoiko ekitaldia ere hilabete honen barruan kokatu du. Trikitilari Eskolak ere bere ekarpena ere egin dio egitarau honi.

Bestetik, azaroaren 30ean HIKA antzerki taldearen "Oihanaren legea" antzezlanak ikusteko aukera izango da polikiroldegian.

Bertsolaritzak ere izango du lekurik. Izan ere, oraindik eguna zehazteke badago ere, Jon Maia eta Xabier Amurizaren "Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak" lana izango baita ikusgai. Ahozko literaturaren altxorra jendearen belarrietara heltzea da ikuskizun honen asmoa. Kantatzeko ez ezik, historia kontatzeko ere balio dute bertsoek. Asmo honekin, XX. mendeko giro politiko eta soziala (gerrateak, gosetea, emigrazioa, frankismoa, eta abar) deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte Xabier Amuriza eta Jon Maiak ekitaldi honetarako. Beraz, bertsozaleek badakizue non duzuen zita.

Ekitaldi hauekin batera ere, beste hainbat hitzaldi eta bideo emanaldi ere izango

dira. Batetik, abenduaren 4ean "1610: muga eta boterea, sorginkerien muga" izeneko hitzaldia izango da. Andatza Kultur Kirol Elkarteak ere diapositiba emanaldi bat eskainiko du.

Txapelketei eta jokoari ere tartetxo bat eskaini nahi izan zaie. Horrela, abenduaren 9ko goizean, bolazaleek beste aukera bat izango dute beren indarrak neurtzeko antolatu den herri mailako Bola Txapelketan.

Hau guztia gutxi balitz, herriko txikienek ere izango dute heuren eguna. Izan ere, azaroaren 24ean Kulki taldearen herri kirolen eta baserri jolasen jaiak gozatzeko aukera izango baitute.

Hau guztiaren koordinazio lanetan **Noaua! Kultur Elkarte** aritu da, herriko hainbat taldeekin batera; besteak beste, AEK, Zumarte, UGA, Aitzaga Kultur Elkarte, Zumarte, Trikitixa Eskola, Txistulari Taldea eta udala.

Kartelak laister izango dituzue herriko paretetan itsasita. Noaua!n ere berri gehiago izango duzue datorren alean. Hau guztia aurrerapen bat baino ez da, azaroa eta abendua bitartean herrian izango dugun kultur eskaintza zabalaz gozaten hasteko.

## Santo Tomas azoka prestatzeko deialdia

Aurtengo Santo Tomas azoka abenduaren 16an izango dugu herrian. Udala, Noaua! eta Ziortzako kideok jada lehen bilera egin dugu iazko eguna baloratzeko eta aurtengoari buruz hitz egiten hasteko. Aurten ere, iazko bideari jarraituz, herriko plazan azoka egin nahi dugu herriko baserrietako produktuekin. Hau guztiaz hitz egiteko, ekarpen berriak entzuteko eta iradokizunak jasotzeko azaroaren 5erako, arratsaldeko 20:00tan, bilera deitu dugu Noaua!ko egoitzan. Beraz, egun hau antolatzeko interesik baduzue, etor zaitezte lasai bilerara edota deitu 943 36 03 21 telefonora.



## Bertsolariak azaroaren 1eko idi-deman

Aurten ere Noaua! Kultur Elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatu ohi dituen ekitaldiak direla eta, bertsolariak antolatu ditu azaroaren 1ean arratsaldeko 18:00tan egingo den idi-demarako. Bertsolariak **Xebastian Lizaso** eta **Millan Telleria** izango dira. Lau idi uztarri batean izango dira. Izetatarrek iazko marka hausterak datoz, gai polita, dudarik gabe, bertsolarientzako.

## Lehiaketa



**Nork irabazi zuen 1967.  
urteko uztailaren 9an  
buruturiko Usurbilgo euskal  
sukaldaritzako eskualdeko  
lehiaketaren lehen saria?**

**Asmatzaileen artean  
Antxeta tabernan bi  
pertonentzat afaria  
zozketatuko dugu**

Aurreko argazkia



Erantzuna



Irabazlea

**Ander Aizpurua**

Saria

**Patri jatetxean bi lagunentzako afaria**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 13

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**N • U**  
*Ileapaindegia*

MISTOA  
*Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura*

Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51

LABE-GOXO  
DENTISTIA • ESTÉTICA • ODONTOLOGIA

## URRIAK 29 astelehena

- Odola emateko aukera izango da anbulatorioan 19.00etatik 21.30etara.

## URRIAK 31 asteazkena

- Aitzaga Kultur Elkartek antolatuta **Thamer Birawi palestinarraren eta Javier Barandianen "Suzko hitzak" ikuskizuna** izango da Udarregi ikastolako erdiko aretoan 19.30etan hasita. Ikuskizunaren aurretik kafea eta palestinako errezeta batekin egindako pastak banatuko dira.

## AZAROAK 1 osteguna

- Batasunak deituta **konzentrazioa herriko frontoian**. "Dispersioaren aurka euskal presoak Euskal Herrira" leloarekin.

## AZAROAK 4 igandea

- Alkartasuna Kooperatibaren **sindikatu berria inauguratuko da** Ugarte industrialdean. Goizeko 11.30etan meza izango da eta 12.30etan **aizkolaria, harri-jasotzaileak eta sokatira** herriko frontoian. Ondoren eraikuntza berria bedekatu eta bazkaria egingo dute han bertan Alkartasuna Kooperatibako bazkideek.

## OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai . Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu ditut anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udallexera eraman ditzala.
- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan egon behar du derrigorrez. Telefonoa: 943. 36.14.49. Orduategia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.
- ✎ Txori kaiola haundiak ematen ditugu modu onean. Telf. 943 364354
- ✎ Motozerra elektrikoa salgai. Su-egurra prestatzeko primerakoa. Telf: 943 364354
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Neska bat eskaintzen da gauean umeak zaintzeko. Telf. 943 371447 (Belen)
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952
- ✎ Pisukide baten bila gabiltza Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- ✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- ✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- ✎ Herriko taberna batean lan egiteko neska edo mutil euskaldun bat behar da. Telf. 943 371042.
- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469

## VII. ESKULANGINTZA AZOKA ETA ERAKUSKETA AZAROAREN 1EAN

### Pilotalekuan goizpartean; azoka

#### Parte hartzaileak:

- Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak (sagar erakusketa)
- Martin Agirresarobe (eztigilea)
- Joxe Luis Elexpe (egurraren taila)
- Maite Agirresarobe (apaingarriak)
- Manuel Utrera (bastoigilea)
- Jabier Argai (lutiera)
- Koki Hernandez (zeramika)
- Maria Pilar Ansa (lore prentsatuak)
- Ana Erze (txontxongiloak)
- Axun Otxotorena (ukendugilea)
- Laureano Paniagua (otargintza)
- David del Toro (argizaria)
- Edorta Murua (pitiak)
- Urtinea (loregintza)
- Saizar (zizarra)

Talo-postua ere egongo da.

### Arratsaldean; idi-dema. Lau idi uzta-ri batean ikusteko aukera arratsaldeko 6etan.

Urdanetako IZETA etorriko da iazko marka gaintu nahian. Iazko marka 13 plaza, zinta bat eta 2,26 metro izan zen.

50 minutuko saioa egin beharko du.

Dema bitartean bertsolariak ere izango dira **Noauak** eta **Udalak** antolatuta: **Xebastian Lizaso eta Millan Telleria**

Sarrera 1.500 pta izango da.

**Antolatzailea: Aitzaga Kultur Elkartea**


**PINTURA ERAKUSKETA**


KASASOLA

AMAIA



**UDAREGI ZAHAR ERAKUSTOKIAN**  
**USURBIL**  
**URRIAK 21 etik 28 ra**

Hasiera : urriak 21 12<sup>00</sup> tan

**ORDUTEGIA: - 18<sup>00</sup> 20<sup>00</sup> H**  
12<sup>00</sup> - 14<sup>00</sup> H

# 100 haur kanta

Piter Ansorenak aukeraturiko haur kanta zahar eta berriak

Takelo, Pirritx eta Porrotx

Kixki, Mixki, Kaxkamelon

Tximeleta Mendian

Katuen Testamentua

Ran roberran

Amona Josefina

Txirula Mirula

Betiza

Pintto Pintto

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Plisti plaut

Gora, gora

Tele-kantak

Urriaren 27tik aurrera

larunbatero eta igandero

+ 595 pezeta  
24 libera

8 CDz osaturiko bilduma

Egunkaria



# USURBILGO OFIZIOAK ZURE

## ESKURA DITUZU

Igeltseritza

**URDANTZI**

**ERRAZKIN  
IGELTSEKITZA**

Kale Nagusia, 1

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

Santuenea ☎ 629 42 05 65

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Faxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

**JOSUE ARANZATZIS**

Igeltseritza eta pintura

Juan Jose enea, 6

Kalezar

☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

Pinturak

**RAMON  
BARCENILLA**

- Pikor pintura eta goitele lanak
- Papereztatze-lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 609 46 09 66

*Pinturas  
lon*

943 83 09 37- 670 39 75 04

Iurgintza

**IÑAKI  
LATAILLADE**

Iturgintza gas eta bero-  
gintza

INSTALAKUN -

Mobila: 609 888021

**PORTULARRUME**

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

**JOSEBA**

**ARANGU**

☎ 943 83 00 72

Elektrizitatea

**MIKEL IZAGI**

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

Aroztegiak

**BEREZIARTUA**

Egurrezko  
aluminio-gurrez-  
ko

Agir Telf: 43 37 5 71

**JOSE RAMON  
IBARGOEN**

Neurriko altzariak eta sukaldeak

Errotaberrri kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

**JOSE MARI  
KURTZA**

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

Eskubla

**JOSE ANTO-  
NIO**

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

**EUGENIO  
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

Giða honetan azaldu nahii  
baduzu, deitu!  
943 36 03 21  
telefonora